

KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA



AITOR URRUTIA ETA IMANOL AZPIROZ, ARRANTZALEAK

**"ITSASOAN IBILTZEAK
BARRU-BARRUTIK ALDATZEN ZAITU"**

PUBLIZITATEA



XIXARIO
Erredegia
Txuleta eta arrainak
panillan
Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19



Olaskoegia z/g
AIA-ORIO
943-13 04 38



ARDORA
Arraindegia
Eusko Gudari, 4
© 943-09 28 27 © 623 47 57 52
ardoraarraindegia@yahoo.com
ORIO

ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA
anorgatxiki@gmail.com
www.cristaleriaanorgatxiki.com
943-37 17 33 · 610 45 93 45

Oria etorbidea, 4
LASARTE-ORIA

- Eralkin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta lspiluak

Pelotari, 5 · ORIO
943-83 00 34
autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.



arkaitz taberna
••••• urio •••••

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Tortitas cántabricas
y/o cocinadas*
abeslari kalea 6 · 943-83 16 57



fontana
iturgintza
Iturgintza · gasa · berogailuak
- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoaren instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru eraldatzea
Arrantzale kalea, 3 · ORIO
fontana-jul@hotmail.es
www.fontaneria-fontana.com
943-53 98 88 · 661 26 28 28



azkue
karrozeriak
Ubegun industrialdea, 7
AIA-ORIO
943-83 51 86

Carmen eta Txomin
ARRAINDEGIAK



TXOMIN ARRAINDEGIA
Eusko Gudarien kalea, 44
943-83 27 47
CARMEN ARRAINDEGIA
Arizaga kalea
943-83 05 37



Zarautz
24 ordu
zure zerbitzura
Araba kalea, 35
ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

Beilatokia
Lekualdatzeak
Eginbide guztien tramitazioa



KARKARA 436

2022-02

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

5 Iritzia

Iñigo Gaiton
Itsas ondarea eta bokazioak

6 Hitz tantak

Aitziber Arzallus *Leire Albisu Iriarte*

8 Izpiak eta hizkiak

Alain Britt *Orioko txoriak, sarean*

10 Gutunak

13 Herrian galdezka

14 Elkarriketa

Iñigo Gaiton
Imanol Azpiroz eta Aitor Urrutia

22 Akiulua hartuta

COVID pasaportearen aurkako
herriar talde bat
COVID ziurtagiririk ez!

23 Nire honetan

Aitziber Arzallus *Antiliderrak*

25 Ikasleak idazle

Zarageta Herri Eskola
Ixabel Agirresaroberi elkarriketa
Amine Benabdalah eta Ander San
Sebastian *Mugikorraren erabilera*
gazteen artean

26 Oroimenaren kutxa

Iñaki Iturain
Aia ezagutzen, ardi jolasean

31 Erreportajea

Iñigo Gaiton
Angula "ondo" harrapatu da aurten

35 Erreportajea

Aitziber Arzallus
Plazan lehertzeko amorratzen

38 Iritzia

Garbiñe Manterola
Garaian garaikoa

39 Osasuna

Maialen Velasco
Lana ondo egin ezinik

41 Euskara

Aitziber Arzallus
Alicia Figueroari elkarriketa

44 Zerbitzuak

45 Agenda

46 Hasi bertsotan
Lander Sarasola

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aitziber Arzallus
Erredaktore taldea
Iñigo Gaiton
Diseinu arduraduna
Maria Lopez
Publizitatea
Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Iñaki Iturain
Garbiñe Manterola
Maialen Velasco
Zorione Mendez

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 3.450 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
udala



**IGLESIAS
SARRAILAGILEAK**

iglesiassarrailagileak@yahoo.es
www.iglesiassarrailagileak.com
Eribera kalea, 14 • ORIO
637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

**24orduko
zerbitzua**



Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



Joseba
AROTEGIA • CARPINTERIA

687 683 427
@josebaarotza@gmail.com

**ATEAK
ZOKALOAK
ARMAIRUAK NEURRIRA
LEIHOAK
ESKAILERAK
AROTEGIA OROKORREAN**



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 - 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 • ORIO
info@garmendia.com



KAIOA

kaioa_denda
www.kaioa.es



**ITZIAR
KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



**PIZZERIA
KALETA**

Arantzadi kalea, 10
943-24 80 46



Kolon Txiki
edarategia • jaxetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel: 943-83 00 44



**KATU
HORIA**

ESTROBALAZ, 10
48100 ORIO
+34 943 11 66 99

LOKALIZAZIOA
668 89 1179



**kutixi
kafetegia**

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17



**LASTER
DESATASCOS**

- Libratutak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teitatu hodien garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hoben geolokalizazioa
- Ur-jario atzematea

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com
24 orduko 688 88 65 36 (larrialdiak)

Abaromendi 3, 20810 ORIO • Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE • 943-75 14 31 (bulegoa)

Itsas ondarea eta bokazioak



IÑIGO GAITON

Azken asteotan, *anguleroen* eta bi arrantzale gazteren inguruan idazten jardun dut aldizkarirako. Idatziz bada ere, poza eman dit haiekin batera motor txikietan eta atunontzietan ibiltzeak, eta are pozgarriagoa egin zait arrantzak orriotan oraindik tokia irabazia duela ikustea.

Beste gauza askoren artean, herrian gertatzen denaren isla izan behar du KARKARAK. Moilan amarratuta dagoen bapore kopurua murrizten joan den heinean, arrantzak ere pisua galdu du aldizkarian, beste gai batzuei tokia eginez. Herria eta aldizkaria, biak etengabeko aldaketan bizi direla ulertu behar da, horrek dakarren on eta txar guztiarekin.

Aitor Urrutia eta Imanol Azpiroren kasua ez da ohikoa herrian, gaur egun oso gutxi baitira bokazioz itsasora joateko hautua egiten duten arrantzale gazteak. Haien elkarrizketa idazten ari nintzela, Iñigo Martinez filosofoaren *Mandamentu hipermodernoak* liburua izan nuen buruan bueltaka. Ondare kulturalari erreferentzia eginez, errealitatea ulertzeko eta eraldatzeko balio behar duela azpimarratzen du Martinezek pasarte batean. Ideia bera sinplea da, ez du ezer berririk esaten, baina badu tira egiteko hari mutur bat. Gure mundua ulertzeaz gain, eraldatzeari ere egiten dio erreferentzia filosofoak; hau da, eboluzionatzeari.

Gehiago edo gutxiago, Orion presente dugu itsas-ondarearen inguruko ulermen ariketa, eta badira modu kontzientean atzera begira jarri garela erakusten duten adibideak: gure itsas historiari buruzko argitalpen dezente daude; 2001ean, arrantzaren gainbehera hasia zela, Balearen Eguna ospatzen hasi ginen; Orioko Curriculum osatzeari ekin genion urte batzuk geroago; Mutiozabal ontziola herriari irekiko zaio aurten; *Errioa, gure nortasuna* liburuxka plazaratu du udalak berriki, herriaren izaera definitzen laguntzeko helburuarekin.

Iraganaren ulermen ariketa bideratu samarra izanik, errealitatearen eraldaketan dugu erronka handiena orain. Esparru horretan aurrera egiteko, haur eta gaztetxoei pizgarriak ematea izan daiteke bide interesgarri bat, estimuluak, itsas giroaren bueltan piztu daitezkeen bokazioak garatu ditzaten. Orion ontzigile apartak ditugu oraindik, punta-puntako surf taulagile eta ingeniari nautikoak, ibaian eta itsasoan inspirazioa aurkitu duten musikari, zinemagile eta moda diseinatzaileak, arrauna ofizio bilatukatu duten goi mailako entrenatzaileak eta nazioartean lanean diharduten ozeanografoak, ogibide batzuk aipatzearen. Erreferenterik ez zaigu falta.

Errioaren eta itsasoaren bueltan pilatutako ezagutza izan da Orioren bereizgarri eta balio erantsi nagusia, eta horrek eman dio aberastasuna herriari, zentzu guztietan. Aurrera begira, itsas ondareak haur eta gaztetxoek latente dituzten bokazioak esnarazteko balio behar digu, norbanako bakoitza eraldatu eta, aldi berean, herri modura eboluzionatzen jarraitzeko. ■■■

**ITSAS ONDAREA
BALIABIDE APARTA DA
HAURREK LATENTE
DITUZTEN BOKAZIOAK
ESNARAZTEKO**

Leire Albisu Iriarte

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITZIBER ARZALLUS

Otsailarekin, santu izendun ospakizunak errenkadan ekartzen ditu egutegiak, negu beltzari buelta ematen ari garen seinale. Kandelaria, San Blas, Santa Ageda... eta aurki, karnabalak. Ohiturei eusteko ahalegin horretan, Aian eta Orion oraindik ere bada Santa Agenda bezperan eskean irteten den kuadrillarik. Baina inguruotan ba ote da inor San Blas opilak egiten dituenik? Bila hasi, eta baita topatu ere: Leire Albisu Iriarte (Donostia, 1967), Aiako Elkano auzoko Goiabe baserrian.

San Blas opilak egiten dituzu. Noiztik eta nolatan?

Urte batzuk badira San Blas opilak egiten hasi nintzela, eta tradizioa ez datorkit nire familiatik, senarraren familiaren aldetik baizik, eibartarra baita bera. Han, sasoi honetan oso ohikoa da San Blas opilak egin eta bedeinkatzera eramatea, eta nire amaginarrebak ere bazuen opilak egiteko ohitura. Bazuen diot, orain ez baititu egiten, nik egiten ditudalako. Seme-alaba bakoitzari ematen zion opil bana, bere erritualtxoa eginda. Are gehiago, tokatu izan zaio urte sasoi honetan Guatemalan, Argentinan edo beste lekuren batean bidaian egotea, eta zegoen lekuan zegoela, beti egiten zuen San Blas opila. Nik hari ikasi nion errezeta, eta gainean jartzen zaion txuri hori egiten Eibarko beste lagun batek erakutsi zidan.

Zein da San Blas opilen sekretua? Zeintzuk dira erabiltzen dituzun osagaiak?

Osagaiek ez dute misterio handirik, honakoak dira: gurina, irina, azukrea, arrautzak eta anis esentzia. Hori bai, guk dena ekologikoa erabiltzen dugu. Gurina Anoetako Sarobe baserriko Gregorio eta Anari erosten diegu; irina Nafarroatik ekartzen dugu, Arguedasetik, eta normalean espelta irina erabiltzen dugu; eta gero, oreari azukre beltzagoa nahasten diogu, eta gaineak egiteko zuriagoa erabiltzen dugu, elur kolore hori emateko. Aurten, gainera, lehendabiziko aldiz glutenik gabeko opilak egin ditugu, horiek arroz irinarekin,

konturatuta baikaude jende asko ari dela dietatik glutena kentzen.

Lan handia al dute?

Orea egitea nahiko sinplea da, baina prozesu guztia luze egiten da; orea egin, moztu, pisatu, forma eman, labekatu, ondoren margotu...

Opil handiak eta txikiak egiten ditugu, eta txiki asko egin behar badira, beren lana izaten dute. Astean behin egiten ditugu, asteazkenetan edo igandeetan, segun eta obradorea noiz daukagun libre.

Urte guztian egiten al dituzu ala garai honetan bakarrik?

Erregeak pasata hasten gara eta martxora arte edo jarraitzen dugu, jendea nazkatzen hasten denera arte. Nik garrantzia ematen diot gauza bakoitza bere garaian egiteari. Barazkiak garaian garaikoak jaten ditugun bezela, gauza hauek ere dagokion garaian egin behar direla iruditzen zait; hala, gogoz hartzen dituzu.

Etxerako egiteaz gain, saltzeko ere egiten dituzue?

Bai, saltzen ditugu ogia saltzen dugun lekuetan; batez ere, Zarautzen, eta orain Aian ere bai, produktu ekologikoak saltzen dituzten denda berri batean.

Zer moduzko harrera izaten dute? Jendeari gustatzen al zaizkio?

Oso ondo saltzen dira; badago jendea benetan San Blas opilen zalea dena, eta haiek zain-zain egoten dira.

Inguruotan San Blas opilak egiteko ohiturarik bazenik-edo entzun izan diozu norbaiti?

Egia esan ez dakit inguruotan sekula ohiturarik izan den, baina San Blas ermitak leku askotan daude; hemen, Elkanon, badago bat, eta uste dut Zarautzen ere badagoela beste bat. Nik badut ohitura San Blas egunaren bueltan auzokoei opil bana emateko, eta badakit baten batek igandera arte itxoitzen duela bedeinkatzeko eta jateko. Ez diodana sekula galdetu da bedeinkatzearen kontu hori nola egiten duen, mezetara eramatea nahikoa izaten den edo apaizak bedeinkatzen duen. ■■■



Orioko txoriak, sarean

ARGAZKIA: ALAIN BRITT

TESTUA: IÑIGO GAITON

Alain Brittek "afizio hutsa" du herrian eta inguruan dabiltzan hegaztiei argazkiak egitea.

Txoriei egindako fotoak pilatzen ari zitzaizkiola ikusita, duela urte batzuk webgune bat jarri zuen martxan, erabilera pertsonalerako, irudiak txukun artxibatzeko helburuarekin. Orduz geroztik, argazkilariak artxibo ederra osatu du, eta nahikoa maiz igotzen ditu sarera argazki berriak.

Ubarroiak, lertxunak, kaioak edota txantxagorriak, mota eta familia desberdinetako txoriak aurki daitezke Britten bilduman.

Orain, KARKARArekin proposamena onartu eta gero eta "lotsa handiarekin", irudiak herritarrek elkarbanatzera animatu da. Hau da Britten artxiboko argazkiak ikusteko esteka: oriokohegaztiak.com Irudian, txirri arrunt pare bat lasai-lasai, Motondo aldean. ■■■





Zuzenketa: Eugenio Azkue Azkue

INAKI ITURAIN

Eugenio Azkue Azkue. Horixe zuen izena Orioko artista margolariak. Azkue zuen bigarren abizena ere, eta ez Goikoetxea. Mari Carmen Azkuek argitu digu, dokumentu baten bidez, aurreko KARKARAn egindako okerra.

Orioko erregistroan eman ziguten Orion jaiotako haurren agirian izen bereko bi jaioberri agertzen dira bi egun segidan: Eugenio Antonio Maria Azkue Azkue 1822ko irailaren 6an jaioa, eta Eugenio Antonio Maria Azkue Goikoetxea 1822ko irailaren 7an jaioa. Oso gauza bitxia. Norbaitek baldin badaki eta argituko baligu hori erregistroko okerra den edo benetan bi haur horiek horrela jaio ote ziren, eskertuko genioke hori argitu izana.

Data oker bat ere bazegoen erreportajea: Tolosako Santa Maria elizako margolana 1856koa da, ez 1956koa.

Non dago jaiotza? Zeinek eraman du Kukuarritik?

JOXEMARI LIZASO

Ez dakit zenbat urte diren Gabonetan Kukuarriko gurutzean jaiotza txiki bat jartzen dudala. Gabon bezperan jarri eta Errege eguna pasata erretiraten dut, hurrengo urtean berdina egiteko.

Badirudi baten bati ez zaiola ondo iruditzen, edota estorbu



Kukuarritik lapurtutako jaiotza. JOXEMARI LIZASO

egiten diola jaiotzak. Iaz, nik jarri eta baten batek kendu egin zuen, eta lurrean aurkitu zuten; hala ere, berriz bere tokian jartzeko aukera izan nuen. Egia esateko, aurtengoan beldur pixka batekin jarri nuen, desagertuko ote zelakoan, baina kalterik egiten ez duela-eta, jartzea erabaki nuen. Handik egun gutxira, orde, falta zen jaiotza; aurtengoan bai, desagertu egin da.

Egia esan ez dut ulertzen ez zeinek ezta zergatik kendu duen. Ilusioz eginiko ekintza bat izan ohi da nirea, eta badakit Kukuarrira jende asko joaten dela hura ikustera eta

ESKERTUKO NUKE JAIOTZA BUELTATZEA, KENDU DUENAK BADAKIELAKO ZER EGIN DUEN

argazkia ateratzera, tartean ume asko.

Horregatik, eskertuko nuke bueltatzea, kendu duenak badakielako zer egin duen; jaiotza ez baitu haizeak eraman, hori seguru.

Zaharren Babeslekuko urteko kuota ordaintzeko azken egunak

ZAHARREN BABESLEKUKO ZUZENDARITZA BATZORDEA

Zaharren Babeslekuko zuzendaritzak erabaki du, iazko etenaren ostean, aurten berriz ere urteko kuota kobratuko dietela bazkideei. Berez, kuotaren ordainketa urtarrilaren 31tik otsailaren 4ra artean egiteko eskatu zuen zuzendaritzak, Zaharren Babeslekuan bertan, 17:00etik 19:00etarako tartean. Dena dela, oraindik ere badira ordainketa egin ez duten

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko, KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

bazkideak, eta horiei eskatu die lehenbailehen egin dezatela. Bazkietza bakoitzak zortzi euro ordaindu behar ditu, eta ordainketa egiteko unean beharrezkoa da bazkide agiria aurkeztea.

Kuota oraindu beharrik ez duten bakarrak dira 2021eko abenduaren 31 baino lehen 80 urte beteta zituzten bazkideak.

Barazki otarreak

HERRITAR TALDE BAT

Herriko hainbat pertsonak garaian garaiko eta Orio inguruan ekoizitako barazkiak eskuratzeko bideak aztertu ditugu. Aurrez izan dira otarreak eskaini dizkiguten hainbat pertsona (Iñaki, Xabi, Idoi) eta hemendik gure eskerrak eman nahi dizkiegu beraien proiektuaz gozatzeko aukera izan dugulako. Baina

beste bide batzuk jorratzea tokatzen da orain.

Zarauzko Ametsola etxalde ekologikoaren proiektua ezagutu dugu (<http://basherrisarea.eus/taldeak/ametsola-etxalde-ekologikoa-zarautz/>) eta, guretzat ez ezik, herritar gehiagorentzat ere interesgarria izan daitekeela pentsatu. Horregatik, bilera irekia antolatu dugu otsailaren 9an, 19:00etan, kultur etxean. Proiektuaren arduradunek lehen eskutik etxaldearen martxa eta proiektua bere azalduko dizkigute, eta gure galderak erantzungo dituzte. Ametsola etxaldearen Zarautzen bertan dago, Elkano auzoan hain zuzen ere, Lertxundi eta Sola baserrien azpian. Proiektuaz gehiago jakiteko edo parte hartzeko interesa baduzu, azaldu bilerara! ■■■

JAIÖBERRIAK

- **Maren Ibirriaga Gonzalez.** Orion, abenduaren 22an.
- **Indar Verheghe Larrañaga.** Orion, abenduaren 25ean.
- **Amair Ugalde Iribar.** Orion, abenduaren 28an.

HILDAKOAK

- **Mariangeles Aizpurua Aranguren.** Orion, abenduaren 24an. 76 urte.
- **Jose Luis Frias Lopez.** Orion, urtarrilaren 4an. 73 urte.
- **Julene Etxeberria Aldatz.** Orion, urtarrilaren 6an. 87 urte.
- **Iñaki Lizaso Arruti.** Orion, urtarrilaren 13an. 54 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio


2022ko ikastaro eta ekitaldiak

- * Dolu Terapeuta zerbitzua -Elder Otxoaren eskutik-
- * Berronrekatzeko energetikoak / irakurketa energetikoak
- * Mindfulness "Atencion plena"
- * JUG -Adin desberdinetarako yoga taldeak-
- * Meditazio eta sustraitzerako tresnak/ praktikak...
- * Eneagrama hitzaldi eta ikastaroa/ "Coaching" ikastaroa eta zerbitzuak
- * Zineforum-aren bitartez gai desberdinen lanketa
- * Arteterapialankdetak, irakurketa eta poesia topaketak
- * Dantza eta mugimentuaren bidezko lanketak/ CLOWN tailer eta topaketak
- * EVIDA eskolaren "Intuzio, energia eta bizitza" ikastaroen jarraipena
- * "Vivir un buen morir y el arte de acompañar" formazioaren jarraipena
- * Nerea Mendizabalarekin kolaborazioak
- * Jose Mª Sarasolaren hitzaldi ireki eta dohakoa

AZKEN NOBEDADEEN BERRI IZATEKO, KONTSULTATU: www.zainbizieltarte.com

zainBIZI elkartea
 zainbizi elkartea | zainbizi elkartea
www.zainbizieltarte.com
 telefonoa 613.02.36.18

MARKETIN DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

GUKA  ZERBITZUAK

Zer iritzi duzu arrantzaleen ofizioaren inguruan?



ANTXON MANZIDOR

"Arrantza ofizio tradizionala da hemen, eta pena ematen dit galtzen ikusteak, borrokatu behar litzateke mantentzeko. Duela urtebete Seychelle uharteetako atunontzi batera joateko aukera suertatu zitzaidan, eta ia-ia joan egin nintzen. Itsasora joan edo hemen tabernan lan egitearen artean egin behar izan nuen hautua, eta bikotekidearekin adostu ondoren, lehorrean geratu naiz. Taberna ere oso lotua da, baina egunero izaten da etxekoekin egoteko aukera. Itsasoak oso gogorra behar du alde horretatik. Dena den, gustura probatuko nuke. Gure aita arrantzalea izan zen hamalau urtez, eta hortik etorriko zait afizioa ziurrenik. Orain osabak motor txiki bat ekarri du, eta harekin arrantzan ibilita baretzen dut arrantzarako grina".



GARI GOÑI

"Azken hamarkadetan pisua galtzen joan den ofizioa da arrantza, eta gure belaunaldiko gazteen artean ia ez da arrantzalerik. Oraingo gazteoi egina eman digute dena, lehen askok ez baitzuen itsasora joan beste aukerarik. Aita itsasoan ibili zen arrantza modura, eta hark betidanik esan izan dit ahal bada lehorrean bilatzeko ofizioa. Horregatik, ingeniari-tza elektronikoa ikasten ari naiz unibertsitatean. Lehorreko ofizio gehienetan etxean egoteko aukera izaten da egunero, eta arrantzak hori du txarra; kanpoan zaudenean, han zaude, urruti, itsasoaren erdian. Arrantzaleak joan-etorrian ibiltzen dira, eta bizimodu horrekin zaila ikusten dut oreka bat bilatzea. Bi bizitza dituztela iruditzen zait: bat itsasokoa, eta bestea lehorrekoa".



MIRIAM GARCIA

"Guk ezagutu dugun arrantza, baxurakoa, krisian dagoen ofizioa da Orion. Ikusi besterik ez dago bapore kopurua nola jaitsi den hamarkadaz hamarkada. Egia esan, estanpa ederra izaten zen trenean herrira iritsi eta zubitik ikusten zena, bapore guztiak moilan lotuta. Hala ere, oso sektore tradizionala eta maskulinizatua da arrantzarena, ez dago hori ukatzerik. Itsasoan gizonak izan dira protagonista, baina emakumeek lehorrean (etxean, zaintzan) egindako lanak ez du oihartzunik izan. Saregileak ere hor daude, gogor egin behar izan dute borroka lana modu ofizialean eta baldintza duinetan egin ahal izateko. Beti esaten dugu itsasora joatea lan gogorra dela, eta egia da hori, baina ez pentsa lehorrean geratzea arrosa kolorekoa denik!"



"Gustuko ofizioa dugu arrantza, gogotsu joaten gara itsasora"

IMANOL AZPIROZ ETA AITOR URRUTIA ARRANTZALEAK

Imanol Azpiroz (Orio, 1999) eta Aitor Urrutia (Orio, 1995) lehengusuek lau hilabeteka antolatua dute bizimodua. Denbora tarte bera egiten dute itsasoan eta lehorrean, Indiako ozeanoko atunontzi handietan eta etxean. Umetatik sentitutako bokazioak eraman ditu arrantzara, eta halaxe jarraitu nahi dute luzaroan.

Testua: **Iñigo Gaiton**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**.



Astelehen, ostiral edo igande, lanegunen eta jaiegunen pertzepzio propioa dute Aitor Urrutiak eta Imanol Azpirozek. Seychelle uharteetara hegan eginda, atunontzi handietan jarduten dute arrantzan hilabete luzez, eta trukean, itsasoaan pasatako denbora bera egiten dute etxean, oporretan. Indiako ozeanoa eta Orio, itsasoa eta lurra, txuria eta beltza. Bi muturren arteko joan-etorrian, arrantziale gazteek oreka bilatu dutela ematen du.

Azken bi hamarkadetan, herriko gazte gutxi egin du itsasorako hautua. Ez da zuen kasua.

A.U.: Niri txikitatik tira izan didate arrantzak, itsasoak, moilako giroak... Bapora batean lan egitea gustatuko litzaidakeela esan izan diot amari aspalditik, umetatik datorkit bokazioa. Gaztetxoa nintzela, Getariako portuan ere lan egin nuen arraina mugitzen, eta lehorretik itsasorako jauzia emateko gogoia areagotu zitzaidan han, bestaldean zegoena probatzekoa. Imanolen aita osaba dut, eta hura atunontziko patroia izateak ere izan du eragina.

I.A.: Aita eta aitona patroiak izanik, arrantza mundua ezagutzeko harra barruan izan dut nik ere. Itsasoko kontuak entzuten nizkien haiei, eta joateko irrika pizten zitzaidan, entzuten nuen hura guztia nire begiekin ikustekoa. Gero, duela urte gutxi, gertutik jarraitu nuen aita patroiei atunontzia egiteko prozesua, eta inpresio handia eragin zidan bapora handia nola egiten zuten ikusteak. Ikaragarria izan zen. Horrek ere bultzatu ninduen itsasora.

Ikasketarik ba al duzue?

I.A.: Bai. Mekatronika modulua egin nuen Zarautzen, baina nire burua bizitza osoan tailer batean ikusteak ez ninduen konbentzitu. Hala, itsas garraiorako eta alturako arrantzako patroiei izateko ikasketak egin nituen Pasaiako itsas eskolan.

A.U.: Nik ez, DBHko ziurtagiria eta arrantziale izateko titulua bakarrik.

Etxean nola hartu zuten itsasora joateko erabakia?

A.U.: Amak animatu egin niduen, probatzeko esan zidan. Osaba patroia izanik, haren baporaan lanerako aukera suertatu zitzaidan, eta lau hilabeteko konpromisoa hartu nuen. Gustatzen ez bazitzaidan, gehiago ez joateko aukera eskura neukan. Ez da hala izan, eta sei urte pasatu dira orduz geroztik.

Nolakoa izan zen lehen aldi hura?

A.U.: Oso gogorra. Aurreneko astean ikaragarri sufritu nuen, hura negar egin beharra! Gure tripulazioa lankide afrikarrek, indonesiarrek eta galiziarrek osatzen dute, eta giroa oso arrotza egin zitzaidan hasieran, tokiz kanpo ibili nintzen. Gainera, normala den bezala, ez dakizu lanean oraindik, eta galduta ibili nintzen, nire zereginak zein ziren asmatu ezinik. Bestalde, osaba baporaan zegoen, baina bi mundu desberdin dira zubia eta kubierta. Hark nahikoa lan bazuen bere zereginekin. Dena den, portuko lehen egunak egin zitzaizkidan gogorrenak. Hemendik Seychelle uharteetara hegan egiten dugu, eta hango portu batean itsasoratzen gara. Bada, moilako giroa nahiko gogorra da, eta hasieran kikilduta egon nintzen. Bertako jendea ibiltzen da portuko zereginetan laguntzen, eta baldintza oso txarretan bizi dira. Haietako asko drogara kateatuta daude, eta inpresio handia eragin zidan hura guztia bertatik bertara ikusteak. Hemengoarekin konparatuz gero, hura beste mundu bat da.

Eta zurea, Imanol?

I.A.: Hasiera samurragoa izan nuela esango nuke, baina Aitor bezala, galduta ibili nintzen. Baporaan tripulazioko kide bakoitzak bere zereginak ditu, eta dinamikan sartzea kosta egiten da. Nik egonaldi bakarra egin dut han, duela sei hilabete hasi nintzen atunontzian lanean. Hasiberria naiz. Aitor eta aita, biak zeuden baporaan lehen momentutik, eta bi erreferentzia izateak asko lasaitu ninduen. Dena den, hegazkinetik jaitsi eta portura bidean gindoazela oso urduri egon nintzen, tripak lehertu beharrean. Askotan jartzen nuen nire burua egoera horretan, sarritan egin izan nuen bisualizazio ariketa hori nire baitan, baina momentua iritsi zenean... Han zoaz, itsasora, eta ez dago atzera bueltarik. Itsasoratzekeo una oso ederra izan zela ere aitortu behar dut. Portutik ateratzen ari ginela, itsasoa zoragarri ikusten zen, oso polita. Horrek guztiak harrapatu egiten zaitu, indar handia du.

Zer lanetan jarduten duzue atunontzian?

I.A.: Zubian ibili naiz ni lehen egunetik. Zubiko langileen artean, hiru maila daude: patroia da kargu handiena duena, gero kapitaina dago, eta ofiziala ondoren. Nik ikasle modura egin nuen aurreneko kanpaina, eta orain ofizial modura jardungo dut beste bapora batean. Aitor eta aita ez ditut ondoan izango aurrerantzean.

A.U.: Gure enpresa Bermeokoa da, eta armadoreak hainbat atunontzi ditu. Horietako beste batera doa Imanol.



Imanol Azpiroz, hondartzako eskoileran.

**"UMETATIK SENTITU DUGU
ITSASORAKO ETA ARRANTZA
MUNDUAREKIKO BOKAZIOA"**



Urrutiak pangatik atunontziari egindako argazkia.

I.A.: Ardurei dagokionez, zubian erabakitzen, egiten eta gertatzen den guztia idazten joatea da ofizialaren lana, patroia ren bulegari moduko bat naiz.

A.U.: Nire kasuan, arrantzale lanetan hasi nintzen, eta orain panga maneiatzeko ardura dut. Sarea bota eta jasotzeko maniobra egiten denean, atunontzi barruan gordetzen dugun beste ontzi bat ere botatzen da itsasora, prozesu osoa behar bezala egin ahal izateko. Hamabi bat metrokoa izango da ontzia, eta sarearen mutur bati tira egiten dio. Atunontziari ere laguntzen dio biratzen, atoi an. Bada, maniobra horietan guztietan ni ibiltzen naiz ontzi horren gidari lanetan.

Aita ondoan izan zenuen lehen esperientzia horretan Imanol, eta zuk osaba. Zer eragin izan zuen bere presentziak zuengan?

I.A.: Asko ikasi dut berarekin, eta hasieratik gauzak egiten eta ukitzen utzi zidan zubian. Dena den, aita beti da aita; ez zen ni kontrolatzen ibiltzen, baina nire inpresioa zen gainean nuela beti. Semea izanik, normala zen nik sentsazio hori izatea.

A.U.: Niri ere antzeko zerbait gertatzen zait berarekin. Hemen gaudenean, Orion, nire osaba da. Han, ordea, patro i modura ikusten dut, eta berarekin ahalik eta gutxien hitz egiten saiatzen naiz. Zorionez, lanean gaizki egiten ditudan gauzak zuzentzen dizkit, eta ikasten joateko aukera ematen dit.

Patroia ren figurak zer suposatzen du tripulazioko gainontzeko lagunentzat?

A.U.: Hark agintzen du, eta kito. Berea da azken hitza baporean hartzen diren erabaki guztietan. Berak erabakitzen du nora jo behar den arraina harrapatzera, sondak markatzen duena eta urteetan pilatutako esperientzian oinarrituz.

Sena beharko du patroiak.

A.U.: Bai, eta erabakiak hartzen ere jakin behar du. Eguraldia eta itsasoko baldintzak interpretatzea ez da erraza izaten, eta hori da bere lana, erabaki onenak hartzen saiatzea. Presiopean lan egiten du, erabaki txar batek pikutara bidal baitezake arrantza. Maniobra desegoki bat eginez gero, adibidez, sarea hautsi egin daiteke, eta egunak behar izaten dira porturatu eta hura konpontzeko.

I.A.: Atunontzi baten zubia oso handia da, eta kontrol gelak apartamentu baten tamaina du. Kapitainaren kamaina, logela, hantxe dago, eta berak han bueltaka pasatzen du denbora gehiena, ia deskonektatu gabe. Ardura handiko lana da.

Arrainik harrapatzen ez den egunetan, presiorik antzematen al da zubian?

I.A.: Giroa aldatzen da, normala den bezala.

Arrantzalea itsasoan arraina harrapatzeko dago, irabazten den dirua horren arabera koa delako hein handi batean. Egun bat harrapatu gabe egonez gero ez da ezer gertatzen, baina hiruzpalau egunez arrainik usaindu gabe ibiliz gero, presio pixka bat sortzen da, bai.

A.U.: Hala ere, presioa sentitze hori zubikoen inpresioa izan daiteke. Arrantzaleok eta tripulazioko kide guztiok konfiantza itsu-itsua dugu patroia ren gan eta hark egiten duen lanaregan. Sarea botatzen ez den egunetan ere, badakigu zubian etengabe jarduten dutela lanean, eta alde horretatik, ondo ulertzen dugu elkar. Batzuetan, arrantza zorte kontua ere izan daiteke.

Zenbat denborako tarteak egiten dituzue itsasoan?

A.U.: Gehienez, hilabete-edo egingo dugu lurrik ikusi gabe. Kamarak betetakoan sartzen gara portura, edo aberia ren bat suertatzen bada.

Hainbeste egunetan lurrik ez ikusteak inpresioa egin behar du.

A.U.: Errespetua ematen du, baina oso ederra da aldi berean. Egunsenti eta ilunabar ikaragarriez gozatzeko aukera izaten da han kanpoan zaudela. Izurdeak eta mota guztietako arrainak ikusten dituzu inguruan.

Zer luzera du zuen baporeak?

I.A.: 90 metro, gutxi gorabehera. Oso handia da. Tripulazioa 42 lagunek osatzen dugu.

Tripulazioko kideen zereginak nola daude banatuta?

A.U.: Indonesiarrek atuna garbitzen eta izozten ibiltzen dira. Abilidade ikaragarria dute arraina garbitzen, oso onak dira, oso txukunak. Baporeak gela edo soto moduko departamentu handi batzuk ditu, eta indonesiarrek han jarduten dute lanean. Lankide afrikarrak, berriz, prismatiko erraldoietan egoten dira beti, itsasoari begira-begira jarrita. Sarea ere haiek josten dute. Uretan egon litezkeen enborrak edo hondakin handiak bilatzen dituzte, frigorifikoak eta halakoak, haiek urpean egiten duten itzalaren babesera hurreratzen delako arraina. Afrikar batek min hartu zuela-eta, hilabete egin nuen prismatikoekin, eta ez nuen lortu ezer ikustea. Oso lan gogorra da, begiak erre egiten direlako. Arrantzari jarduten dugunak euskaldunak eta espainiarrak gara, baita zubian dabiltzanak ere.

Zer nolako giroa duzue guztion artean?

A.U.: Oso-oso ona, eta urrea balio du. Gaizki konpontzen diren tripulazioak ikusi izan ditut portuetan, eta ez nuke halako baten parte izan nahi. Denbora asko egiten dugu elkarrekin ontzitik



Urrutia baporearen barruan, atuna garbitzen duten tokian.

atera gabe, eta elkarbizitza ahalik eta onena izan dadin saiatzen gara guztiok.

Nolakoa da baporeko eguneroko bizitza?

A.U.: Eguzkia ateratzen denetik ilundu arte aritzen gara lanean, gutxi gorabehera; goizeko seietatik arratsaldeko seietara. Gero, txandakatuz, bi orduko guardiak izaten ditugu. Lanari dagokionez, goizeko lehen orduan sarea botatzen da normalean. Bi edo hiru orduko kontua izaten da. Hori egin ezean, kubiartan ibiltzen gara itsasontziaren mantenu lanak egiten. Beti dago zerbait: sareak konpondu, kableak aldatu, pintatu...

I.U.: Nirea antzeko ordutegia da, baina itsasoan gaudenean gauero-gauero izaten dut guardia zubian, gauerditik patroia esnatzen denera arte. Ordubiak edo lauak izan daitezke... Ordu horietako loa bazkalostean errekupeparen dut. Denera, gauean hiru lagun egoten gara guardian: zubian bat, bestea makinetan eta hirugarrena kubiartan.

Etetik kanpo hilabete asko egiten dituzuela kontuan izanik, konforme al zaudete jasoten duzuen soldatarekin?

A.U.: Bai, gure lana ondo ordainduta dagoela iruditzen zait. Gure soldata baxurako arrantzaleek dutenaren tankerakoa izango da. Onerako edo

txarrerako, urtea beste modu batera antolatua dugu, hori da haiekin dugun diferentzia.

I.A.: Niri iruditzen zait gure lana ez dagoela ikaragarri ondo ordainduta, baina ondo bai.

A.U.: Zulo handia dago postu batzuetatik bestera. Normala ere bada, goi karguetan dabiltzanen ardura ikaragarria delako. Ditugun baldintza guztiak kontuan izanik, etxean egiten dugun denbora eta abar, lan ona dugula deritzot.

I.A.: Nik ere bai.

Ofizioak zer eragin izan du zuen garapenean? Lagunek nola ikusten zaituztete kanpotik?

I.A.: Ederki bizi garela esaten digute kuadrillakoek, baina ez gaituzte han ikusten! Hemen beti libre egoten gara, oporretan, baina lau hilabete luze egiten dira kanpoan. Inguruko inork ez du hara joan nahi lanera, ez zaie hain ona irudituko.

A.U.: Han nola ibiltzen garen ikusiko balute, beste pertzepzio bat izango lukete. Etxekoren bat gaixotzen bada, ezin duzu ezer egin laguntzeko. Demagun aitona-amonaren bat hiltzen zaizula han zauden bitartean... Urruti egiten duzu urtearen zati handi bat, eta horrek bere zama du. Han zaudela, hemengo arazoengatik berdin-berdin sufritzen duzu, eta ezin duzu laguntzeko ezer egin.



Otsailetik ekainera bitartean Indiako Ozeanoan izango dira Urrutia eta Azpiroz.

Halakoetan, enpresa ondo portatzen dela aitortu behar dut, eta etxean ezbeharren bat izanez gero, ahalik eta azkarren hona bidaltzen saiatzen dira.

I.A.: Atzerrian eta itsasoan hilabeteak egiteak aldatu egiten zaitu. Barruan zerbait mugitzen dizu. Zer? Ez dakit, baina ez zara pertsona bera hura ezagutu eta gero. Denbora asko izaten duzu zure buruarekin egoteko, pentsatzeko, eta horrek aldatu egiten zaitu barrutik.

A.U.: Aurreneko aldian, mundua jaten nuela joan nintzen hara, gaztetasunak ematen duen indarrarekin. Ostia ederra hartu nuen iritsi bezain pronto. Txiki-txikia sentitu nintzen kolpetik.

Eta etorritakoan, kabitzen al zarete lehorrean? Ofizioak nola eragiten die inguruko jendearekin dituzuen harremanei?

A.U.: Nire joan-etorriak ospatzeko aitzakiarekin, parranda ederrak egiten dituzte kuadrillakoek! kar-kar-kar... Ongi etorriak edo despedidak, beti izaten da zerbait festarako. Bikotekideari dagokionez, urteak daramatzagu elkarrekin, eta oraingoz behintzat ondo eusten diogu orekari. Elkarrekin dugun bizitza proiektuarekin jarraitzen dugu, eta etxe bat erostea gustatuko litzaiguke. Zorionez, Internet garaiko arrantzaleak gara gu, eta horri esker egunero mezuren bat edo beste bidaltzen diogu elkarri. Dena den, harreman mota honetan gehiago sufritzen du hemen geratzen

denak, edo hori iruditzen zait niri. Ni gustura joaten naiz hara, asko gustatzen zait ofizioa, zorte hori dut. Gozamen eta bokazio puntu hori ez balego, horrela ibiltzeak ez luke mereziko. Tripulazioko lagunek kontatzen didatenez, seme-alabak izandakoan asko aldatzen da gauza. Batzuek oso gaizki pasatzen dute. Gure ofizioan ibilita umeak ez dira hazten ikusten, haien hazkuntza prozesuko gauza asko galtzen omen dira itsasoan egonda. Uler dezaket.

I.A.: Lau hilabetea antolatuta daude gure txandak. Azken hilabetea egiten da luzeena, bai hemen eta bai han. Hiru hilabete azkar pasatzen dira kanpoan, baina laugarrena... Etxera alde egiteko egunak kontatzen ibili nintzen azken asteetan. Hemen ere azken hilabetea arraroa da, burua hara joaten hasten delako. Negu aldean lagunek-eta haien errutina dute, eta zu hor zaude, oporretan, beste erritmo batean... Galderari erantzunez, oso gogorra da etxekoak eta lagunak hilabete luzez ez ikustea. Hori da lanaren alderdirik zailena.

Eta onena?

I.A.: Arrain asko harrapatzen den egunetan izaten den gozamina. Eta noski, etxera itzultzean sentitzen den poza.

Zenbat harrapatzen duzue hilabete batean?

I.A.: 900 tona atun harrapatuz gero, oso ona da hilabetea.



**"GIRO BIKAINA DUGU TRIPULAZIOKO
KIDEON ARTEAN, ETA HORREK
URREA BALIO DU"**

**"ETXETIK KANPO ETA ITSASOAN
HAINBESTE DENBORA EGITEAK
ALDATU EGITEN ZAITU"**

**"LUZAROAN JARRAITU NAHI DUGU
ITSASOAN, GUSTUKO OFIZIOA DUGU
ARRANTZA"**

Zuen enpresako Alakrana ontzia piratek bahitu zuten 2009an. Ordur geroztik, segurtasun langileak dituzue ontzietan. Nola dago gaia gaur egun?

A.U.: Hiru zaintzaile ditugu baporean. Gehienak militar ohiak izaten dira, armekin ibiltzera ohituta dagoen jendea. Zorionez, itsasoan egindako sei urteotan ez dut piratarik ikusi, eta ez ditut begien bistan izan nahi.

Ba al duzue beldur hori?

I.A.: Nik ez.

A.U.: Sustorik izan ez duzulako. Itsasoan ginen batean, piratek ontzi bat erasotu zutela entzun genuen. Portura sartutakoan erasotutako ontzia ikusi genuen, eta albo batean kristoren zuloa zeukan baporeak, piratek botatako granada batek eraginda. Gure ontziko zaintzaileek baino armamentu gehiago dute piratek. Babes handiena atunontziaren tamainak ematen digu, piratak ontzi txikietan ibiltzen direlako. Eta segurtasun langileek ere babes handia ematen dute, noski. Broma gutxi horiekin.

Itsasoan ikusten al duzue zuen burua 20 urte barru?

A.U.: Bai. Esperientzia pilatzen joan eta egunen batean kontramaisu izatera iristeko ilusioa dut. Bera da kubiartako lanen arduraduna, eta asko jakin behar da postu horretan ondo lan egiteko. Orain asmatuko nuke bere lanak egiten, baina ustekabeak edo istripuak gerta litezke, eta horiei azkar eta ondo erantzuteko abilitadea behar da. Lasaitasuna ere bai.

I.A.: Kapitain modura lan egitea gustatuko litzaidake egunen batean, baina nire bene-benetako ametsa, patroizatera iristea da. Oso zaila izango da, baina gogor saiatuko naiz horretan.

Bukatzeko, kontatu ahaztuko ez duzuen momentu bat.

I.A.: Bost egunez arrantzarik egin gabe egon ginen behin. Itsasontziko giroa nahiko triste zegoen, eta kolpetik, berrehun tona harrapatu genituen. Ikaragarria izan zen. Portura joan ginen harrapatutako guztia hustu eta berriro itsasora ateratzeko asmoarekin, baina ez ziguten laga, kupoa bete egin genuelako. Hura ere kolpe handia izan zen.

A.U.: Nire 'bataioa' ez dut ahaztuko. Gure kontramaisua oso saltseroa da, eta aukera duenean ez du txantxetarako aukerarik galtzen. Apaiz baten itxurarekin mozorrotu zen, eta komuneko eskuila berri bat hartu zuen eskuan, ni bataiatzeko. Salmuerako ura bota zidan gainetik, ikaragarri hotza egoten den kirasdun ura... kar-kar-kar... Atuna harrapatu genuen lehen aldia ere buruan ilztatuta dut. Hura ikuskizuna! ■■■

COVID ziurtagiririk ez!

Haurrak, nerabeak! Ondo egin duzue dena, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, udal arduradunek, gurasoek, irakasleek eta abarrek (edonork hartu baitu zuenganako ardura, baita baimenik gabe ere) jarri dizkizueten neurri guztiak zintzo bete dituzue, helduen eztabaida koherente eta inkoherenteen gainetik. Ordainetan jaso dituzue etxeratzerik gogorrenak, osasun fisikorako nahiz emozionalerako hain beharrezkoa zaizuen kirola uztea, distantzia soziala ikastetxeetan...

Nola demontre azaldu behar zaie hau haurrei? Nork esango die etorkizunik ez duen helduen obra baterako entseguetako txotxongiloak izan direla? Gure haurrekin,

behingoz, errespetuz eta zintzo jokatu nahi izatera, etorkizunean izango dituzten gatazka emozional andanaren jakitun izanda ere, beste aldera begiratu eta aurrera jarraitu dugula kontatzeko gai al gara? Nola adieraziko diegu hau guztia norberaren erantzukizun eta erabakiak errespetatzeko gai ez garen helduok; erabaki propioak albokoari zainetik sartu nahi dizkiogunok; iritzi desberdina duenari zigorrik gogorrenak jartzeaz gozatzen dugunok;

**COVID PASAPORTEA
ONARTZEN BADUZU
GAUR, ALBOKOA
BAZTERTZEN ARI
ZARELA ARGI IZAN**

umeen beharrak zapaltzeko prest gaudenok...? Nola azalduko diezu haurrei hau guztia onartu duzula?

Hiltzeko beldurrez bizitzera behartu nahi gaituzte bonbardaketa komunikatibo manipulatu baten bidez, interes globalista honen irtenbidea telebistan agertzen diren horien eskutik iritsiko balitz bezala. Hasieratik, hainbat osasun adituk zalantza handitan ipini dituzte PC Rak, maskarak, konfinamendua... Jakina, zenbait adituren iritziak entzuteko eta irakurtzeko zailtasunak handiak izan dira; egia bat eta bakarra azaldu nahi izan dute eztabaidari ateak itxiz. COVIDa, nonbait, hil ala biziko kontua izanik,

HAUXE BAI JENEROA!



ezjakintasunaren aurrean botika berriak eta txertoak esperimentatzea nahikoa ez, eta hara non azaldu zen COVID ziurtagiria.

Baimen baztertzaila, nazia, *apartheid* baimena... Txertatzea ardatz duen pasaporte sanitarioa, laster PCRak ere oparituko ez duena; txertatze dosi kopurua aldatzen doan heinean, aurrez harturikoak baliorik gabe uzten dituen pasaportea. Publikoki, Hego Euskal Herriko kolore ezberdinetako alderdien kontrakorik entzun ez duen pasea: COVID ziurtagiria. 'Dagozkizun' txertoak hartu dituzula zehazten duen pasea, non txertoa izan ala ez, berdin-berdin kutsatzen den gaixotasuna. Pasaporte lotsagarria. Ederra *pitorreoa*! Pasaportea ez ote da txertaketaren azken helburua?

Aurrez pentsatua eta programatua zuten tramitea?

Norbera libre da bere barruari eta iristen zaion adituari edo ikerketei begiratzeko. Judizialki ezin omen gaituzte behartu maskara edo txertoak jartzera, eta gure ustez denborak jada erakutsi du azken horiek osasun erreminta gisa baino beste zerbaitegatik ipini dituzten neurriak direla. Ustez, nahaspila honi guztia zentzu pixka bat hartzen hasiak gara, batzuk behintzat. Horrexegatik izan ote da hau guztia?

COVID pasaportea onartzen baduzu gaur, albokoa baztertzen eta zapaltzen ari zarela argi izan. Agintariek aurkeztu dute COVID ziurtagiria, bonbardaketa informatiboz plazaratua. Onartu egin behar al duzu? ■■■

NIRE HONETAN



AITZIBER ARZALLUS

Antiliderrak

Gure lanbide honetan, era askotako gauzak egitea tokatzen zaigu. Oraintxe ari naiteke nire bizitzako elkarrizketarik interesgarriena egiten; geroxeago, korrika eta presaka, azken orduko albiste bat webgunean sartzen; goiz erdi bat pasa nezake mezu elektronikoak eta telefono deiak erantzuten; edo hurrengo aldizkariaren krokisa osatu ezinda, zeruak eta lurra madarikatzen. Ohiko lanetaz aparte, tarteka, formazio saioak ere izaten ditugu, eta hain zuzen ere, azken asteotan lidertzari buruzko ikastaro bat ari gara egiten. Azaldu digute zeintzuk diren nagusi izatearen eta lider izatearen arteko aldeak, zenbat eratako liderrak dauden, zeintzuk diren lider on baten ezaugarriak... Eta gauza batekin gelditu naiz: nagusiek langileak dituztela, eta nagusientzat langileak direla beren onurarako erabil ditzaiken baliabide soilak; eta, aldiz, liderrek jarraitzaileak dituztela, kolaboratzaileak, eredu izaten direla, eta nahi gabe ere, jendea erakartzen dutela.

Eta orain —urtarrilak 28, ostirala—, hemen ari gara aldizkaria inprentara bidali aurreko lanetan, azken ukituak ematen. Eta asteari errematea emateko, arratsaldean Labiren bilera. Gaurkoan zer erabakiko ote dute gure antiliderrak? Zein ote hurrengo adar jotzea? ■■■





**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**



ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Zaragueta, antzoki

IXABEL AGIRRESAROBÉ AKTOREA ETA IPUIN KONTALARIA

Nor da Ixabel Agirresarobe? Ixabel Agirresarobe Arzallus Usurbilen jaio eta bertan bizi den pertsona da. Babak eltzetik ateratzen ikasi duena.

Txikitan zer nahi zenuen izan?

Ez dut gogoan, baina pentsatzen dut ideia eta gogo ezberdinak izango nituela.

Zer gustatzen zaizu gehien egitea, antzeztea ala idaztea?

Ipuinak kontatzea eta antzeztea. Idazteko kontu hori gauza berria da niretzat eta oraindik ez dut nire burua arlo horretan egokituta ikusten.

Zenbat urterekin egin zenuen lehenengo antzerkia? Nola zuen izena?

Ziurrenik lehen hezkuntzako urteren batean. Orduko horretan, gure ikastolako ikasturte amaierako jaialdi haietako batean.

Zer paper mota gustatzen zaizu antzeztea?

Gehienbat, komikoak. Kale antzerkian, komikoaz gain, ikuslea zirikatzea eta parte hartzea bultzatzen duena. Ipuin kontaketa ere horrela egiten dut.

Noiz hasi zinen eskoletan antzerkia erakusten? Eta Zaraguetan?

Aspaldi; 25 urte izango dira honez gero, nahiz eta horretan aritu gabe ere izan ditudan urte batzuk. Zaraguetan, berriz, uste



dut laugarren urtea dudala, eta oso gustura nago.

Antzerkigintzaz aparte, beste lanen bat egin duzu edo egiten duzu?

Bai, ipuinak kontatzen ditut. 30 urte badaramatzat horretan.

Azken urtean, gainera, eguneko zentro pare batean adinekoei ere kontatzen dizkiet ipuinak, eta beraiek niri pasadizoak eta beste kontu batzuk kontatzen dizkidate.

Zenbat liburu idatzi dituzu?

Bost, eta denek amona Tomaxa dute protagonista.

Nola aukeratzen duzu liburua idazteko gaia?

Batzuetan, nire buruan darabilkidan kezka izaten dut gaia; eta besteetan, azkenekoaren kasuan, *Mattin*-ek (ilustratzailea) proposatu zidan.

Telebistan lanik egin al duzu?

Bai, *Wazemank*-en, *Ipupomamua*-n eta *Brinkola* telesailan. Dena dela, zuzeneko lana dut atseginena. Horietan jendearen aurpegia ikusten duzu eta momentuak eskatzen dizunaren arabera eskaini dezakezu saioa. ■

AMINE
BENABDALAHANDER
SAN SEBASTIAN

Mugikorraren erabilera gazteen artean

Heldu askoren ustez, mugikorraren erabilera gazteen artean arazo bihurtu da, horrela ote? Guk uste dugu ez dela horrela, helduek ez daukatela arrazoirik hori esateko.

Gaur egun, mugikorrak hainbat jardueratarako behar dira, eta horien artean garrantzitsuenak, ikasteko. Esate baterako, zalantza bat dugunean Googlen sartzen gara informazioa aurkitu eta argitzeko.

Egia da gazteek mugikorra asko erabiltzen dutela, halere, ez dute beti erabilera txarra egiten. Askotan, harreman berriak egiteko eta jendearekin erlazionatzeko erabiltzen da. Gainera, orain, egoera berezia bizi dugu, eta konfinatzen gaituztenean, bideo-deiak egiteko aukera ematen digu.

Dibertitzeko beste modu bat ere izan daiteke, bakarka edo taldean jolasteko. Milaka jolas daude Interneten lagunekin jolasteko, eta gainera, jolas askok gaitasunak lantzeko aukera ematen digute. Adibidez, aurkaria garaitzeko estrategia bat aurkitzea, taldean lanean aritzeko baliabideak garatzea eta kontzeptu batzuk memorizatzea.

Ondorioz, mugikorraren erabilera gazteentzat onuragarria dela esan dezakegu, eta ez gatoz bat helduek uste dutenarekin. ■

Aia ezagutzen, ardi jolasean



IÑAKI ITURAIN ITURAIN@GMAIL.COM
ARGAZKIAK: UTZITAKOAK

Aiako frontoiaren ondo-ondoko plazatxotik, hango behatoki-balkoitik, ondo ikusten dira Zarautz eta Orio, baita herrigunetik itsaso aldera jaisten diren Aiako zelaiak ere. Toki zoragarri hartan Aiak jolas bat proposatzen dio herrira bertaratu den bisitariari, Aiako herriaz, kulturaz eta herritarrez dakienaz gain, beste pixka bat ikasi nahi baldin badu. *Aiako ardi jolasa* du izena. Originala eta berezia da, ez da toki askotan izango antzeko jolasik; eta pedagogikoa, ikasteko balio baitezake, jolasari arreta pixka bat emanaz gero.

Asier Erguin diseinugilearen eta Eneko Sanz historialariaren ideia batek ekarri zuen jolasa herrira, eta 2018ko udan zabaldu zen. Jolasa ibilbide bat da, lurrean margotuta dagoena, zoruan. Dinamika antzara-jokoaren antzekoa du: erruletari birarazi eta hark erakutsitako zenbakiaren arabera egingo da aurrera, lehenengo koadrotik abiatuta. Jolaseko 63 koadroetan Aiari eta aiarei buruzko gaiak

azaltzen dira. Horixe du oinarri jolasak: haiei buruzko ezagutza; nolabait ere Aiaren curriculum da, eta Aiako historia eta kultura agertzen dira: herritarren eguneroko bizitza, ohiturak, auzo-herriak, pertsonaia historikoak, ikurrak, kirolariak, gertaerak, baserriarren lanabesak... Ikur nagusitzat ardia erabaki zuten, eta ardiak eman zion izena jolasari. Ardia eta aharia, biak agertzen dira, espezie bereko emea eta arra.

Altxerriko kobazuloko gizakiarekin abiatzen da jolasa, orain dela 30.000 urte han bizi zen gizakiak koba barruko paretetan margotutako animalien irudiekin. Bi iruditan agertzen da Altxerri: batean, gizakia suaren argitan oreinaren irudiari begira; eta bestean, txori bat. Altxerriren ondoren, salto handi bat eginez, Aiaren

GOGORATZEKO BALIO DU, HAUSNARTZEKO, HERRIA ZER IZAN DEN ETA NOLAKOA DEN BESTEEI ERAKUSTEKO

izen ofiziala agertzen da: Universidad de Aia, herriaren armarriarekin batera. Universidad hitzak adierazten du udalerria nukleo txiki askotan sakabanatuta dagoela.

Aiarren lanbideak

Ardi jolasean lanak toki handia hartzen du, nola ez, ba! Baserria agertzen zaigu, Aiako historian izan den unitate ekonomiko nagusia. Emakume bat harrikoa egiten. Errota eta errotariak. Andazarrateko transbordadorearen abialekua, hango meategietako burdinmea Zarauzko Mollarrira eramateko. Segalaria, zelaian segan. Itzaina itulan, atzean idi-parea duela. Agorregiko errementaria, burdin puska gori-goriari heltzen. Ontzigilea, ontziolan ontzia eraikitzen. Arrantzalea, baleari arpoia sartzen. Ferratzailea, idia ferratzen. Etxekoandrea, erreka ertzean harrikoa egiten. Irulea, iruten. Ikazkina, txondor gainean, ikatz egiteko lanean. Elur-zuloa mendian. Baserriko lanerako lanabesak: alperra, laia, arto-makina, igitaia, lauhortza, area, kopetekoa, uztarria, lera, asto-sillak... Eta etxeko



Agustín Arruti, Izuelako artzaina, XIX. mendeko bertsolaria, Altzolakoa, bertso-paperean aitzindarietako bat izan zen. Fernando Amezketarraren ustezko bizitzako pasarte batzuk Izuelarenak omen dira.

sutondoan familia elkartuta arto-aletzen. Irudi horretan batera datoz lana eta atsedena, familian denak elkarrekin goxatzeko aukera.

Baina, dena ez baita lana, atsedena ere badu bere lekua. Hortxe daude Aiako jai nagusiak: San Donato eta San Lorentzo. Festetan, aizkoran, enborraren gainetik. Buruhandiak. Andatzako erromeria, Aristerrazu baserriaren ondoko plazan, Laja eta Landakanda trikitilariak jotzen eta herritarrak dantza

sueltoan. Hamaiketakorako salda, gazta, ardoa..., txantxangorria leiho-hegian eta Aiako baserrietatik ikusten den paisaia berde ederra. Haurrak kukumiketan (Orion kuxumekotan esan ohi dena), Gorostiola baserriko belar-meta baten atzean ezkutatuta. Haurrak neguan elurretan leraren gainean, pozik, hilerritik maldan behera jaisten. Artzaina txakurrarekin, paseoan, guardasola besapean daramala...

Kirolari aiarrak

Kirolaz ere ez ziren ahaztu jolas honetan. Emakumezko harri-jasotzailea ikus daiteke Elkano auzoan, 118 kiloko harria jasotzen. Jose Migel Maiz korrika, Lasarteko krosa irabazi duen euskaldun bakarra, 1968an Mamo Wolde bezalako korrikalari olimpikoen aurretik nagusitu zena. Idi-dema, dema-plazan. Arraunlariak traineruan arraunean, Aiako Kirol Elkartearen logo eta kolorearekin (Orioko traineruan ia beti egon da



Altzolako Arriarte baserriko Juliana amona. Astoarekin joaten zen Altzolatik Aiara, erosketak egitera. Astoa ez zen mugitzen ez bazitzaion goxokirik ematen.



Manterola-Erdiko Jose Migel Maiz korrikalaria, seniorretan Lasarteko krosa irabazi duen euskaldun bakarra; 1968an izan zen.

ARDI JOLASA AIAKO CURRICULUMA ERE BADA, HERRIAREN HISTORIA ETA KULTURA BILTZEN DITU

aiarren bat, orain ere bai, bai mutiletan bai nesketan; bada dioenik aiarrak gabe Oriok ez duela banderarik irabazten; baina aiarrak beste herri batzuetako traineruan ere izan dira). *Aiako pareta*, Agerre zaharren egoitzatik gora doan malda izugarria, Euskal Herriko itzulian txirrindulariek igotzen duten tenteena. Eta pilotaria, frontoian, esku-pilotan, nola ez; Aiako udalerrian frontoi asko baitago, auzo-herri bakoitzeko bat, eta Aiak auzo-herri asko ditu.

Nolabait ere Aiako herriaren ikurtzat jo daitezkeen zenbait gun e eta une ere ageri dira: Kanposantua. Asentzio feria, maiatzaren bukaeran ospatu ohi den ganadu-feria: esne-behia, larre-behia, bigantxa, idia, ardia, ahuntza, astoa, zaldia, ponya, pottoka eta besteak. Sorgina sendabelarrak

biltzen. Pagoetako tumulua, prehistoriako hilerria, monumentu funerarioa. Antzinako gizakia, adarrak buru gainean eta makila eskuan. San Esteban eliza. Altzolako kanposantua. Azpitarte baserria. Aizpeako baseliza. Iturran baserria, Euskal Herriko parke botanikorik ederrena, landarez eta lorez ondoen hornitutakoa. Aiako etxe askotako atarian egon ohi den eguzki-lorea. Olentzero. Eta Pagoeta mendi tontorreko gurutzea.

Aiako pertsonaia historikoak
Aian jaiotako edo Aiarekin lotura zuzena izandako pertsonaia historikoak ere han daude. Juan Sebastian Elkano, munduari lehenengo aldiz bira osoa eman zion marinela; duela urte gutxi Laurgaingo jauregian topatutako dokumentu batean,



Txirrindularien lasterketetan, Euskal Herrian dagoen aldaparik tenteenetakoa da Aiako pareta, Agerre baseritik Aizpeako ermitaraino doana, %28rainoko pendiza hartzen du.



Gabino Alustiza, Aiako alkatea 1936ko uztailan gerra hasi zenean. Faxistek atxilotu eta hil egin zuten Hernaniko kanposantuan.

Espainiako erregeak sinatua, non *Primus circundedisti me* hitzak ageri diren. Loiolako Inazio, San Ignazio, 1523an Loiolarako bidean Iturriotzeko Bentan gaua pasatu omen zuenekoa (baserriko pareta gurutzez betea ageri da, eta santua leiho baten ondoan). Juan Fermin Gilisagasti, XVIII. mendeko ainguragilea, erresuma osoan hiru tonatik gorako aingurak egiteko gauza zen bakarra. Arriarteko Juliana astoarekin, haren gaineko otarretan erosketak garraiatzen. J. Joakin Arrillaga Enbil, Kaliforniako gobernadorea. Izuelako artzaina, Aiak eman dituen bertsolari ezagunetatik aspaldikoena, aulkian eserita, eskuan bertsopaperen liburua duela. Leon Huegun, *Leon Txiki*, Kortatu musika taldearen disko baten azalean agertzen den gizona,

bizkarrean aizkora duela. Preso bat, ezezaguna, kartzelako ziegan gatibu, barroteen atzean (historian zehar preso egon den hainbeste euskaldunen ikurra izan daiteke).

Orain arte aipatutako pertsonaia historiko guztiak, edo irudirik gabe edo ardiaren irudiak ordezkatuak dira; baten kasuan bakarrik ageri da irudia argazki historikoarekin: Gabino Alustiza, gerra garaian Aiako alkate zena, 1936an faxistek atxilotu eta Hernaniko kanposantuan fusilatu zutena, eta 2015ean Aiako herritarren omenaldi beroa jaso zuen gizona.

Aiako auzo-herriak

Aiak hamaika auzo-herri ditu, denak baserri-girokoak: Altzola, Andatza, Arrutiegia, Elkano, Etxetaballa, Iruretaegia, Kurpidea,

Laurgain, Olaskoegia, Santioerreka eta Urdaneta. Baina itsasertza ere badu, lur zati txiki bat Zarautz eta Orio artean. Itsasoa gertu du Aiak, ikusi egiten da herrigunetik; eta, jakina, itsasoa ondo irudikatuta agertzen da jolasean: trainerua, euskal kortsarioak, eta angula-zaleak Santioerrekan, Portu baserriaren ondoan.

Aia eta aiarren erretratu bat egin dute jolasaren bidez. Gauza asko daude eta beste asko falta dira. Ez daude diren guztiak, baina dauden guztiak badira. Batzuek esango zuten honezkero "baina nola ez dute sartu halako", baina dena sartzea ezinezkoa baita. Jolasak gogoratzeko balio du, hausnartzeko, kanpotarrei herria zer izan den eta nolakoa den azaltzeko. Ez da gutxi! ■



Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

KORTABERRI
arotz lanak

kortaberri.arotza@hotmail.com

665 70 33 47



Lizaso Dekorazioa

Eusko Gudari, 48 - ORIO - 943-83 07 84
lizasos@gmail.com

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56
libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com

Eusko gudariak, 35 - ORIO
(sarrera Arrantzale kaleetik)



Orio elikatuz Bizi



MARIJO

Eusko Gudari, 8 beheko - ORIO
943-13 47 29



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 - 20810 Orio - Egin erreserba 943-53 61 27

MENDIZABAL
AROZTEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altxerri bidea, Beti-Aia etxea - AIA-ORIO
943-83 11 75 - 445 70 84 91
mendi@arotegi.net

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 beheko
ORIO
943-57 53 61
oinari@podologia-oinari.com
www.podologia-oinari.com

PAKO IMAZ



PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 - 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com - ORIO

ZINKU
ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzaren erreformak
- Teillatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua
komunikaziorik gabe*

Ander Zinkunagi
667 74 02 79



INDO

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa






Ubegun Industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 - FAX-a: 943-13 01 44

Angula "ondo" harrapatu da aurten

Abenduaren 1etik urtarrilaren 8ra bitartekoa izan da angularen kanpaina, eta *anguleroek* "hamar bat egunetan" jardun dute errioan arrantzan. Unai Eizagirre konforme azaldu da harrapatutako angula kantitatearekin eta iaz sortu zuten Euskadiko Anguleroen Elkartearen martxarekin. Bera da presidentea.

Testua eta argazkiak:
Iñigo Gaiton.

Iaz izurriagatik etena egin ondoren, aurtengo neguan anguletan ibiltzeko aukera izan da berriro. Abendu hasieran hasi ziren arrantzan, eta kanpainaren hasierako egunetan eta amaiera aldera angula "ondo" harrapatu zutela azaldu du Unai Eizagirrek.

Anguletarako baldintza oso espezifikoak behar izaten dira, eta *anguleroak* adi-adi egon ohi dira ilargiari, itsas-mareei eta eguraldiari begira. Bada, aurtengo kanpainaren erdialdeko asteetan, baldintza horiek ez dituzte aldeko izan: "Euriteen ondorioz ujal ikaragarria izan zen egun batzuetan, eta gero, euririk ez zuen egin". Dena dela, Eizagirre konforme agertu da aurten harrapatutako angula kantitatearekin.

Angularen biziraupena kolokan dagoela argudiatuz, Eusko Jaurlaritzak asko murriztu du azken urteetan arrantzarako egun kopurua. Eizagirrerren esanetan, beraiek ez dute inpresio bera: "Eguraldiak laguntzen duenean eta anguletarako baldintza onak tokatzen direnean, ondo harrapatzen da. Angula badagoen seinale argia da hori".

Kopuru aldetik, paretsu ibili dira aurten eta duela bi urte. "Hamabi arrantza egun izateko baimena eman ziguten orduan, eta bostean bakarrik atera ginen. Aurten, zorionez, bost aste utzi dizkigute, eta denbora tarte horretan hamabi edo hamalau arrantza egun izatea aurreikusi genuen. Azkenean, gutxixeago izan dira; hamar egunetan ibili gara errioan".



Unai Eizagirre, Euskadiko Anguleroen Elkarteko presidentea.

Motorra anguletan, Muntoaren parean.

Lizentziekin buelta

Oria ibaian 24 lizentzia daude emanda angulak motorretik harrapatzeko. Lehorretik arrantza egiteko, berriz, 180. Horietatik guztietatik 23 oriotarrenak dira, eta hamar aiarrenak. Eizagirre kezkatuta agertu da, gazteek lizentziak lortzeko aukerarik ez dutelako izan. "2003an eman ziren lizentziak, eta ordutik berritu bakarrik egiten dira, ez dira berriak ematen. Hori dela eta, anguletan ibiltzen garenon artean 35 urte izango ditu gazteenak".

Ondorioz, "kolokan" ikusten du tradizioaren transmisioa.

"Anguleroen batz besteko adina gero eta altuagoa da, eta ez dago erreleborik. Martxa honetan, zaletasuna galdu egingo da".

Arazo horri eta beste zenbaiti aterabidea emateko helburuarekin, Euskal Anguleroen Elkartea sortu zuten iaz. Eizagirre bera da presidentea. "Lizentzia kopuru bat zehazteko proposatu diogu Eusko Jaurlaritzari, batzuk erretiratzeko doazen heinean gazteek ere sartzeko aukera izan dezaten. Ez dute nahi, angularen egoera kritikoa dela argudiatuz", kexatu da.

Zalantzan jartzen du hori. "Angularen biziraupenean faktore askok eragiten dute. Horren aurrean, Eusko Jaurlaritzak gauza bakarra egin du: gure jardunari mugak jarri, besterik ez. Zientzialariek onartzen dutenez, espeziearen biziraupenari dagokionez, arazoaren %20 da arrantza. Zer gertatzen da gainontzeko guztiarekin?", galdetu du.

Bere iritziz, orain angulero gutxiago dagoela kontuan izanik, normala ere bada garai batean baino angula gutxiago harrapatzea.

"Batzuek salatzen dute orain kilo gutxiago harrapatzen dela.

Normala! Duela 20 urte 40 enbarkazio ibiltzen ziren Orian, eta ia sei hilabetez jarduten ziren anguletan. Orain 20 motor bakarrik gabiltza, eta arrantzarako dugun denbora tarte askoz ere murriztagoa da".

Eizagirreraren hitzetan, Europako Batasunak zehaztuta ditu zenbait neurri angularen kontserbazioari begira; tartean, ibaietatik uraren turbinak kentzea edo espezie inbaditzaileak kontrolatzea. "Euskal Herrian ez da horrelako ezer egin, guri mugak jartzeaz aparte. Eta gauza bat argi dagoela uste dut: gu gara angularen biziraupena gehien interesatzen zaion kolektiboa".



Gaia Orian kokatuz, zehaztapen gehiago eman ditu. "Urte asko daramatzagu errioari adi-adi begira, eta haren eboluzio kezkarriaren lekuko izan gara. Lehen moilan hamarrak ikusten ziren, algak ibaiertzean, hondartzan iskirak... 25 urtean ikaragarri aldatu da ingurune natural guztia, hondar gutxiago dago, eta lohia gehiago. Erreta dago errio ingurua, eta bioaniztasuna galdu egin da. Aldaketa horiek guztiek angulengan izan duten eragina ikertu al da? Ez".

Kupoekin aurrerantzean?

Euskal Herriko arrantzaleak elkartuta, Euskadiko Anguleroen Elkartea sortu zuten iaz. Eizagirrek onura asko ikusten dizkio kolektiboan jarduteari, eta gustura dago elkarteak daraman martxarekin. Bera da presidentea. "Erakundeekin harremanak errazagoak dira orain. Haiek ere gustura daude eman dugun urratsarekin", azaldu du.

Anguleroen jardunak zeresana eman izan du aspaldidanik, eta sortu izan dira eztabaidak haien arrantzen inguruan. Orain, elkartearekin, errazagoa zaie "ospe txarrari" aurre egitea. "Denetik entzun behar izan dugu, kriminalak garela, mafia bat... Ez dugu ezkutatzeko ezer. Guardia Zibila aurre egunero ibili da errioan, haiekin garbi hitz egiten dugu, urtean mila kontrol pasatzen ditugu. Zentzu horretan, elkarteak indarra eman digu".

Datorren neguari begira, lanerako ildo zehatza dute, Europatik datorren lege aldaketa baten harira. "Alturako eta baxurako baporeek jarduten duten bezala, kupoen bidezko funtzionamendua ezarri nahi dute anguletarako. Hau da, kilo kopurua mugatu nahi dute, profesionalen modura arrantza egin dezagun. Eusko Jaurlaritzak adierazi digunez, litekeena da horretara behartzea, baina guretzat arazo handia litzateke. Besteak beste, jubilatutako jendea da anguletan ibiltzen den asko. Akordio batera iritsi beharko dugu erakundeekin, eta lege eta araudi berrietara egokitzea tokatuko zaigu. Ahal den neurrian, angula arrantza afizio modura mantentzen saiatuko gara, hemen tradizioa hori izan delako". ■

**GAUR-GAURKOZ,
ORION HOGEI LAGUNEK
DUTE ANGULETARAKO
LIZENTZIA; AIAN,
BERRIZ, HAMARREK**

**"ERRIOARI BEGIRA
URTEAK
DARAMATZAGU, ETA
HAREN EBOLUZIOA
KEZKAGARRIA DA"**



Portu
Enstela - Jaitela

Kazolita, baserriko jolasakoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g AIA
943-89 44 34



Sagasti
LEINAK

Tel: 943-13 00 22 • Fax: 943-83 71 50
sagasti@oriokoikastola.com
Euzko Gudar. 7
23810 Orio

Kaltazterako materialak
PVC eta alumina • Isolamendu termiko eta akustikoa
Sainmenta osteko zerbitzuak



BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



Seguros
Bilbao Santi Barranco
Orioko Ordezkarria

Endaia Enparantza, 1 • ORIO • sbarranco@segurosbilbao.com
943-11 16 00 • 688 71 48 69



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 • ORIO • 943-83 12 36



Sinergia
fisioterapia eta kirolak

Ibai ondo, 1 beheko • ORIO
943-13 05 77 • 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com

- Lesioak: bihurturak, tendinitisiak, zointzurak, kontrakturak, hanka handiurak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hesureko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errehabilitazioa.
- Tratamenduak: terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze limfatikoa, arnas fisioterapia, kinesioaping-a, pilates, abdominaleko gimnasia hipopresiboa (GHI), REDCORD.



Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA

Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus



Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 • 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia • Tala-ahinak
Masaje terapeutikoa • Osteopatia



SU KIA
SU KOREA JASOTZEN

Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oñaskoak eramateko
Ogitarretakoak
Plater konbinatuak
Tienaza oderra
(abonatu uneentzako parkoa)

Abaramendi 38, beheko 1
ORIO • 943-89 21 29



Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43
612137anahizkuntza.net

Plazan lehertzeko amorratzen

Intza Unanue eta Julen Alonso ez dira musikagintzan hasi berriak, baina 25na urterekin, beterano ere ezin zaie deitu. Hortxe daude, tarteko puntu horretan, eta beren ibilbideko une erabakigarriena izan daitekeenean. Lan berri bana eskuetan, hori ahalik eta gehien zabaltzea beste desiorik ez dute; baina aukerak behar dituzte.

Testua: **Aitziber Arzallus.**
Argazkiak: **Aitziber Arzallus,**
Iñigo Gaiton eta utzitakoa.

Intza Unanue eta Julen Alonso. 25na urte, oriotarrak biak, eta musikariak. Betidanik elkar ezagutzen dute. "Uste dut musika munduan ere batera hasi ginela", esan du Alonsok. Baietz, Unanuek. "Ikastolak sortu zuen Olaxka izeneko musika talde bat, nahi zuenak parte hartzeko", jarraitu du Alonsok. "Eta talde hartatik, sortu zen Uhats izeneko beste bat". Unanue sartu da zehaztapena egitera: "Olaxkan kanta herrikoiak-eta kantatzen genituen, eta Uhatsen, Julenek, adibidez, aukera izan zuen bere lehen konposizioak egiteko. Nik uste orduan hasiko zinela kantak sortzen", zuzendu zaio Alonsori. "Eta Intza zen talde hartako ahots printzipala", bota dio bueltan.

10 bat urte izango zituen, eta ordurako, akordeoia eta pianoa jotzen zituen Alonsok; gero hasi zen trikitixa ikasten. "Txapelketetan hasi nintzen, eta 21 urtera arte jarraitu nuen. Adin horretan, bi aukera daukazu: lagatzea edo beste bide bat hartzea. Nik erabaki nuen disko bat ateratzea lagunengan artean banatzeko, eta horrekin batera, bideoklip bat ere egin nuen". Ikusi zuen, lagunengana eta lagunak ez zirenengana ere iristen ari zela, eta orduan erabaki zuen Durangoko Azokan aurkeztea, eta geroxeago, *Sutan dantzan* ikuskizuna sortzea. Emanaldiak errenkadan sortzen joan zitzaizkion, eta duela pare bat urte-edo, bigarren diskoa sortzen hastea erabaki zuen.

Unanuek ere musikari lotuta jarraitu du urteotan guztiotan, baina oso bestelako bidea egin du. 14 urte zituela Benito Lertxundiren taldean hasi zen kantatzen, Olatz Zugastiren alboan. Berak sortutako lehen kanta 2018an atera zuen, "nik ere lagunek eta ingurukoek entzuteko asmoarekin", eta 2020an erabaki zuen disko bat ateratzea.



Intza Unanue eta Julen Alonso.

Lan bana eskuartean

Beraz, gazteak izanagatik, ez dira gaur goizean hasitakoak. Biek ala biek ederki asko dakite oholtza baten gainean eta ehunka lagunuen aurrean jarduteak zer nolako zirrara sorrarazten duen. Beren larruan bizi izan dute. Eta horixe nahi dute berriz ere. Lehenbailehen. Denbora luzez aritu baitira horretarako lanean, bakoitza bere zuloan, gorputza eta bihotza jarrita. Eta bilduma banarekin atera dira handik.

Unanuek azaroan aurkeztu zuen berea: *Ilundu aurretik*, bost abestiz osatutako lana. Gaur-gaurkoz, Interneteko plataformetan dago entzungai; aurki, euskarri fisikoan ere bai. Alonsok, berriz, abenduan plazaratu zuen berea: *Eskuetan bihotza*, zortzi kantaz osatutako bilduma. Aurrena diskoan kaleratu zuen, baina dagoeneko sarean oso-osorik entzungai dago hori ere.

Isileko lanak bukatuta, orain zarata egitea tokatzen zaie. Horretarako, inportantea, ganorazko aurkezpen bat egitea, plazan, jendearen aurrean. Baina ez dira horretarako garai errazak. Bestela ere ez, eta pandemiaren ondorioz, are gutxiago. Aukerak urri, eta emanaldi bat lotzeko zortea izanda ere, batere ziurtasunik ez. Oholtza gainera igo eta jotzen hasi arte, sekulako tentsioa, edozein momentutan dena bertan behera geratzeko arriskua bene-benetakoa delako.

"Begira zer gertatu zaidan niri", esan du Alonsok. *Eskuetan bihotza* ikuskizunaren estreinaldia urtarrilaren 22an egitekoa zen Aiako probalekuan, baina berari sortutako osasun arazo bat tarteko, bertan behera utzi behar izan zuen emanaldia. Data berria oraindik hitzartu ez duten arren, aurki izango dela ziurtatu du, ahal izatera, hil honetan bertan, "orain izan behar duela sentitzen baitut".

Antzerako egoeran dago Unanue ere, baina ez egoera berean: "Julenek aurretik beste disko bat dauka kanean eta harekin Euskal Herrian hara eta hona ibiltzeko aukera izan du; esperientzia pixka bat badauka. Nire kasuan, lehen lana dut eta lehendabiziko emanaldia egiteko nago oraindik. Egin dugun lana erakutsi nahi genuke, baina aukerarik ez daukagu".



Unanuek esandakoa baieztatu du Alonsok. "Halaxe da. Kontzertuetara inguruko jendea etortzea sekulako babesia da eta oso ondo dago, baina ailegatuko da momentu bat familiakoak eta lagunak etorriko ez direna, eta horrelako gauza batek funtzionatzeko behar du askoz jende gehiago enteratzea, zure musika askoz gehiagok entzutea, zure izena ezagun egitea. Baina ez badute zure kantarik jartzen medioetan, eta adibidez, irratan, lau artistaren abestiak besterik ez badituzte jartzen, jendeak pentsatzen du Euskal Herrian lau artista horiek besterik ez daudela".

Erakusteko asko

Unanue: "Nik daukadan sentipena da gure ibilbidea izango dela inbertsio konstante bat, bai diruari dagokionez, bai sakrifizioari dagokionez; bueltan ez dugula ordainik jasotzen". Eta gauza deigarri bat kontatuz jarraitu du: "Neure diskoa atera aurretik, Benitoren taldean ibiltzen nintzenean, beste taldekideen ondoan gaztea nintzenez-eta, sentitzen nuen medioen aldetik bazegoela interesa nirekiko. Tarte bat zeukatenen, elkarrizketetarako-eta deitu egiten zidaten. Eta gero, gertatu zait, aurreneko kanta eta bideoklipa atera ditudala, jo dudala hedabideetara nire proiektua saltzera, eta ez didatela lekuri egin nahi izan". "Konturatzen zara, erabili egiten zaituztela", jarraitu du Alonsok. "Programa betetzeko behar zaituztenean, deitzen dizute; baina zuk behar dituzunean, ez daude. Eta gu bezala, beste hamaika artista daude, eta lanak autoekoizten ari garenok oraindik eta zailago dauzkagu gauzak, atzetik ez daukagulako diskoetxerik, ez daukagulako babesik".

Gakoa hor dagoela uste dute biek. Beren musika ez bada entzuten, diskorik ez dutela salduko, kontzertuetara inor ez dela joango, kontzerturik emateko aukerarik ez zaiela sortuko. Horrela, bada, babesia eta aukerak eskatu dituzte, plazak nahi dituzte, asko dutelako erakusteko eta emateko. ■■■

**"NIK DAUKADAN
SENTIPENA DA GURE
IBILBIDEA IZANGO
DELA INBERTSIO
KONSTANTE BAT"**

**"BEHAR ZAITUZTENEAN
DEITZEN DIZUTE,
BAINA ZUK BEHAR
DITUZUNEAN,
EZ DAUDE"**

Garaian garaikoa



GARBIÑE MANTEROLA

Umetan sekulako frustrazioa sortzen zidan kontu batek. Herriko frontoian jolasean ginela nagusiren bat azaldu eta marru egiteak: "Alde hemendik, erreserbatua dugu frontoia". Zahar haiek plana egina zuten, eta sosak zituzten poltsikoan, gainera. Guk ez bata, ez bestea.

Aurrez dena lotua izateak bentajak dituela esango duzue askok. Besteei aurrea hartzea dela esango nuke nik, inprobisazioa maite dugunokiko abantaila desleiala aisiaren merkatuan. Akabo garaian garaikoaz gozatzea. Etorkizuna beltza da, berarengan gehiegi pentsatzen ez duenarentzat.

Urriak 10. Erosketak egitera joan nintzen. Erreskada dotorean mahai bete polboroi dirdiratsu topatu nuen. Eskerrak iraungitze data luzea izaten duten, bestela urte berria gastroenteritisarekin hasteko aukera, dezentekoa. Abenduaren 23an joan nintzen nireak erostera, eta diabetikoentzako turroiak bakarrik topatu nituen baldan.

Azaroak 12. Herriko dendariak negozio ingurua edertzen topatu nituen eta, txantxetan, Gabonetarako ez ote ziren ariko galdetu nien. Ni ari nintzela adarra jotzen pentsatu zuten haiek. Garaia zen dekorazio gorri-berderako. Guk, amarenean, turroi diabetikoen egunean apaindu genuen etxea. Jesusik ez estalpean, 24ra arte ez baita jaiotzen.

Urtarrilak 2. Irratian moda diseinatzaile bat hizketan. Uda laster iritsiko zela, kolore bizi eta alaien garaia. Hamar egun eskas negua estreinatu genuela eta txaparroak probatzera bidali gintuen. Egun hartatik eskularrurik eta txapelik ez da falta izan nire eguneroko motxilan. Badaezpadako hotza egin du azken asteetan.

Gaur, otsailaren 3a da, San Blas eguna. Badira egun batzuk elur zuri azukrezko opilak herriko gozotegietan daudela. Horiek ez dira kadukatzen, baina harri koskorren pare jartzen dira segituan. Hortzik gabe geratuko ez banaiz, hobe ez probatu. Dentistarenean ez da ordurik izango 2023ko martxora arte.

Antolatu behar honekin, Gabon garaian eguzkitako krema izango dugu zapatetan eta uda sasoiari borladi txanoak kuleroen kaxoian.

Espontaneo samar bizitzen denari kalte izugarria egin diote azken bi urteek. Plangintza ofizio bihurtu baita. Hori horrela, bada garaia Eusko Legebiltzarrean berariazko lege bat aurkezteko: jatetxe, kontzertu, zinema, ostatu eta antzekoetan, espazioaren %10 inprobisatzaileentzat gordeko duena. Inprobisatzaile ziurtagiri bat aurkeztekoa nahikoa izango da pribilegio horietaz gozatzeko. Kanpaina egiten hasia naiz. Lema, askatasunerako erreserbak. Helburua lortzen ez badut, eguneroko bat erosi eta nire bizitzako denbora tarte guztiak betetzen hasiko naiz.

Akaso hobe entseatzeko astea. Abuztuaren 27an kafea hartzeko mahaia erreserbatu dut hondartza bazterreko tabernan. Beste bostentzat lekua bada. KARKARAKO bulegoan utzi dut zerrenda, eta izen-ematea otsailaren 6a baino lehenago egin behar da. Ah! Eta apunta zer eskatzea nahi duzuen, bestela agian ez baituzue nahi duzuen topatuko. ■■■

**ESPONTANEO SAMAR
BIZITZEN DENARI
KALTE IZUGARRIA
EGIN DIOTE
AZKEN BI URTEEK**

Lana ondo egin ezinik



TESTUA: MAIALEN VELASCO

Izurriaren egungo panoramari buruzko artikulua idazteko proposamena egin didate KARKARAko lagunek. Gaiak pereza handia eman zidan hasieran, pandemia beste konturik ez delako eguneroko bizitzan; igogailuko azaleko berriketaldietan, kaleko enkontruetan eta aspaldian ikusi ez dituzun lagunekin gosaltzeko elkartutakoan.

Ez zaituztet engainatuko. Giroa oso nahastuta dago gizarteko esparru gehienetan, eta nik gauza bakarra dakit seguru: lehen arretako medikua naizela. Nire ahotsa aditu batena den edo ez, zuek erabaki.

Bi urte gogor hauen ondoren, hustuta bilatzen dut nire burua, eta ez dut uste esateko ezer interesgarririk dudarik ere. Kontatu dezaket, osasun arloko langile askok adierazi duten modura, egoerarekin nazkatuta eta gain hartuta gabiltzala gu ere, pazienteei merezi duten arreta eman ezinda. Egoera surrealistikak bizi ditugu egunero. ETBko kazetariak ni baino lehenago izaten duten osasun protokoloetan izandako aldaketen berri, eta gaueko *Teleberria* ikusten ez badut, hurrengo goizean ez dut jakiten pazienteek egiten dizkidaten

galderei behar bezala erantzuten eta ondo lan egiten.

Lehen arretak duen betekadaren ondorioz, paziente bakoitzarekin hitz egiteko eta komunikatzeko dugun denbora ere asko murriztu da. Kontsultan edo telefono bidez artatzen ditugun pertsonen zerrenda behar lukeena baino dezenteluzagoa da, eta lanegunak ez digu eginbehar guztietara behar bezala iristeko denborarik uzten. Ahaztu, noski, goiz erdian kafetxoa edo arnas pixka bat hartzeko tarteaz. Aspaldi galdu genituen 'pribilegio' horiek.

Ez, ez dugu etenik txikiena ere. Halaxe gaude. Lehendik ere ez zen ona gure egoera, eta pandemiak erabat txartu du. Oso gogorra da gure lanari dagokion ardurarekin eta, aldi berean, egungo ziurgabetasunarekin lan egitea.

Urtarrilaren 23an, Osakidetzaaren egoera jasangaitza salatzeko

**EZ SENTITU ERRUDUN
HARTZEN DITUZUEN
ERABAKIEKIN, AHAL
DUGUNA EGITEN ARI
GARA GUZTIOK**

manifestazioa egin zen Donostian —Bilbon eta Gasteizen ere bai—. Ez dakit zer ohiartzun izan zuen mobilizazioak, egun berean, Realak berdindu egin zuelako ligako partida. Horrek gehiago kezkatzen gaitu oraindik ere.

Datozen hilabetei begira birusak zer bide hartuko duen galdetu izan didate, eta ez dut jakiten erantzun argi bat ematen. Gaur egun, mundu guztiak plazaratzen du bere iritzia, denok bihurtu baikara aditu pandemia arraio honetan. Nik, nahiago dut isilik egon. Zergatik? Gure ezagutza zientifikoan oinarrituz zerbait esanez gero, eta ez badugu asmatzen, kritika gogorrak entzun behar izaten ditugulako, eta gure sinesgarritasuna oso maiz jartzen delako kolokan.

Eskaera bakarra egin nahiko nuke: zentzuz jokatu mesedez, eta maskarekin, txertoekin edo nahi duzuen modura, zaindu zuen burua. Eta, batez ere, ez sentitu errudun hartzen dituzuen erabakiengatik. Ezohiko egoera honetan denok ari gara ahal duguna egiten. Horretan ari gara osasun langileok ere, pazienteak artatzen eta esatea bera gogorra den arren, jende askoren bizitzak salbatzen. ■



**BATU KARKARAREN PROIEKTURA,
BATZEN GAITUENA GARAI**

Egin zure ekarpena:
bazkide@ukt.eus - 943-81 38 41



Hemengo haragia.
Etxeko produktua: tripa, odolki,
txekorria, txorizo, kroketak...

**KARKATEGIT
PATXI
OLIDEN
URDATEGIT**

Eusko Gudari, 25 - 943-83 00 10



IZARRA ELEKTROGAILUAK

Sukaldeak neurritara egiten ditugu

Eusko Gudari, 44 - 20810 Orio (Gipuzkoa)
943-83 38 81
izarraelectrodomesticos@gmail.com

ESKELAK

Aiako eta Orioko eskelak
Karkara.eus atarian

Eskela bat jarri nahi
izanez gero, deitu
KARKAKO bulegora.
943-83 15 27 edo idatzi
karkara@karkara.eus
helbidera.



BETI ZUREKIN GIPUZKOA 943 903 450

Bertako Igagailuek-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua,
Solbuespenik gabe.

bertako
Igagailuek-ekin zerbitzua ematen

www.bertako.eus

FORUMARI
JANAKIA

IZARRA JARDUEN
BULEGON
BERRUGAILAK

BAZKIDE
TOKIA

QR code

"Euskarak denbora eta jarraikortasuna eskatzen ditu"

ALICIA FIGUEROA EUSKARA IKASLEA ORIOKO AEK EUSKALTEGIAN

Umeak hazita, euskarari behar duen denbora eskaintzeko modua ikusi du aurten, eta ez du zalantzarik egin. Denak animatu nahi lituzke.



Alicia Figueroa. AITZIBER ARZALLUS

AITZIBER ARZALLUS

Alicia Figueroa (Tacoronte, Tenerife, Kanaria Uharteak, 1971) 23 urterekin utzi zuen jaioterria, Euskal Herrira etortzeko. Saskibaloia ekarri zuen hona. Jokalari profesionala zen, eta Donostian sortu zitzaion aukera. Ia hiru hamarkada geroago, hemen jarraitzen du oraindik; Orion bizitzen, dozena bat urte. Euskara ikasteko beharra "betidanik" sentitu izan duen arren, oraintsu arte ezinezkoa egin zaio familia, lana eta euskara ikasketak uztartzea. Aurten, ordea, modua ikusi du, eta Orioko euskaltegian izena eman du.

Lehendabiziko ikasturtea duzu Orioko euskaltegian. Gustura al zabiltz?

Zoriontsu joaten naiz eskolera. **Astean zenbat ordu eskaintzen dizkiozu euskara ikasteari?**

"TERAPEUTIKOA ERE BADA EUSKALTEGIRA JOATEA; BI ORDUZ ERRUTINATIK DESKONEKTATZEN DUT"

Astean lautan joaten naiz euskaltegira, astelehenetik ostegunera, egunean bi orduz. Horretaz aparte, etxerako lanak ere bidaltzen dizkigute batzuetan.

Zergatik aurten?

Seme-alabek 18, 16 eta 10 urte beteta, neuretzat denbora gehiago daukat orain, eta erabaki dut denbora hori euskara ikasten erabiltzea.

Aurrez euskaltegian ibilitakoa al zara?

Duela urte mordo bat, lehendabiziko semea izan nuenean, Errenterian egin nuen lehen saiakera. Baina bigarren semea izan nuen gero, eta utzi egin behar izan nuen, denborarik ez neukalako. Alaba izan nuenean ere egin nuen beste saiakera bat, baina euskaltegira joateko beti norbaitekin laga behar izaten nuen, eta azkenean utzi egin nuen. Euskarak denbora eta jarraikortasuna eskatzen ditu, eta ume txiki-kin zaila da hori.

Zer egiten zaizu zailena?

Aditzak, aditzen denborak; denak buruan sartzea.

Eta zer gustatzen zaizu gehien?

Hitzen semantika, esanahia, oso polita da.

Urteotan batere aldatu al da euskara irakasteko modua?

Dezente, esango nuke. Lehen, eskolak teorikoagoak ziren eta joera handiago zegoen bakarka lan egiteko; orain, praktikoagoak dira, interaktiboagoak, eta jolasa asko erabiltzen dugu.

Zer moduz ikusten duzu zeure burua?

Nahiko ondo; pixka bat gehiago jakitea falta zait, mintzapraktika gehixeago, askatzeko. Hanka sartzeari beldurra galtzen ere ari naiz, eta hori oso garrantzitsua iruditzen zait. Gainera, etxekoek ere laguntzen didate: lehen, euskaraz ez nekiela eta ez saiatzeko esaten zidaten seme-alabek; orain, egitera bultzatzen naute. **Zer esango zenioke euskaltegian izena eman edo ez zalantzan dabilen horri?**


Animatzeko, euskara ikatea dibertigarria dela. Ez dezala hartu zama bat bezala, hobeto gizarteratzeko aukera bat bezala baizik. Niretzat terapeutikoa ere bada euskaltegira joatea; bi orduz errutinatik deskonektatzen dut. ■

Sudokua

Nola esaten diozu ondoko munstro handi honi, HERENSUGE ala DRAGOI? Egia esanda, biak dira anak, baina bigarrenak, sei hizki dituenaz, sudoku honetarako aitzakia eman digu. Beraz, bete itzazu hutsuneak DRAGOI hitza osatzen duten hizkiez (D, R, A, G, O eta I). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

			O		
	O		R	G	
			G		O
	A			D	
D		O			G
	R		D		

Margotu



Zortziko txikia

Aurki itzazu hiru neska-mutilen eta haien isloren artean dauden aldeak. Zortzi dira guztira.



DOMINOAN

Txanogorritxoren dominoak sei elementu hauek ditu: Amonaren etxola, ehiztariaren eskopeta, saskia, otsoa, basoa eta Txanogorritxo. Aipatutako elementuok marraztuz, bete itzazu hutsuneak domina zatiak zentzuz izan dezan.





Hona hemen Maripurtzil eta Pelloziri etsoz eta Txanagorritxez mozarrotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.



Bide batez, eman kolorea irudi hauei ere.

Mezua Konturatuko zinen bezala, orrietako jolasen gaiak liburu oso ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istorio ospetsu baten izenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/



IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabanentzat eta karabanentzat plazak alokagai. Garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Telefonoa: 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje baten bila Goiko kalen. Telefonoa: 690 27 28 42.

Garaje itxia alokagai Orion, Baxoalde kalean. Telefonoa: 615 15 03 14.

LAN ESKAINTZA

Kolon Txiki jatetxea zerbitzari euskaldun baten bila dabil. Informazio gehiago behar duenak 628 84 65 58 telefono zenbakira dei dezake edo juanjokolon-biki@gmail.com helbidera idatzi.

LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Telefonoa: 627 61 37 83.

Emakume gaztea lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lane-tarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Telefonoa: 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Telefonoa: 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzen lan egiteko prest nago. Telefonoa: 631 82 44 52.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasunari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Telefonoa: 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Telefonoa: 643 85 78 54 Samanta.

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest. Fardelak aldatzen eta duxkatzen laguntzen espezializatua. Orduka lan egiteko prest. Telefonoa: 697 65 05 19.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Telefonoa: 695 37 82 60 Estrella Reyes.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguru ardaindu du. 3.500 euro. Telefonoa: 657 77 45 11.

Zerrama, apotea eta txerrikumeak salgai Usurbilgo baserri batean. Telefonoa: 607 66 86 03 Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITV'a pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Telefonoa: 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan hartzeko, Orion edo inguruan. Telefonoa: 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera
1	04:23 eta 16:54	10:34 eta 22:50
2	05:09 eta 17:38	11:19 eta 23:33
3	05:52 eta 18:18	12:02
4	06:34 eta 18:57	00:15 eta 12:43
5	07:15 eta 19:35	00:57 eta 13:23
6	07:55 eta 20:14	01:38 eta 14:03
7	08:37 eta 20:57	02:21 eta 14:46
8	09:24 eta 21:52	03:09 eta 15:35
9	10:24 eta 23:06	04:08 eta 16:37
10	11:46	05:24 eta 17:56
11	00:32 eta 13:11	06:49 eta 19:15
12	01:43 eta 14:14	07:59 eta 20:14
13	02:35 eta 15:00	08:50 eta 20:59
14	03:15 eta 15:38	09:30 eta 21:36
15	03:51 eta 16:12	10:05 eta 22:10
16	04:24 eta 16:45	10:37 eta 22:42
17	04:57 eta 17:17	11:09 eta 23:15
18	05:29 eta 17:50	11:41 eta 23:48
19	06:03 eta 18:24	12:14
20	06:39 eta 18:59	00:23 eta 12:49
21	07:16 eta 19:38	01:01 eta 13:28
22	07:58 eta 20:23	01:43 eta 14:11
23	08:47 eta 21:20	02:31 eta 15:02
24	09:51 eta 22:36	03:30 eta 16:08
25	11:23	04:47 eta 17:35
26	00:09 eta 13:03	06:20 eta 19:04
27	01:31 eta 14:17	07:43 eta 20:14
28	02:35 eta 15:13	08:47 eta 21:07

FARMAZIAK-OTSAILA

ZARAUTZ

17 eta 23.	ETXERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
7 eta 28.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
11, 12, 13, 18, 24 eta 25.	GALLO: Zigortia kalea, 17 / 943-13 40 19
2, 8 eta 14.	GARMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarbo Enea / 943-13 29 70
4, 5, 6, 10, 16 eta 22.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
3, 9, 15 eta 21.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
1, 19 eta 20.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
26 eta 27.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

ORIO

OTSAILAK 11, OSTIRALA

Emanaldia: Andoni Egaña eta Xebastian Lizasoren *Bederatzikoa*.
Kultur etxean, 19:00etan.

OTSAILAK 11, OSTIRALA

Bertsio gaua: Orion Musik Apest.
Etxeluze gaztetxean.

OTSAILAK 16, ASTEAZKENA

Hitzaldia: NOR Euskal Herria
Antiespezistako Maialen Saguesek.
Etxeluze gaztetxean.

OTSAILAK 21, ASTELEHENA

Ipuin kontaketa:
Mirian Mendozaren eskutik.
Kultur etxean, 17:30ean.

OTSAILAK 25, OSTIRALA

Kontzertua: Mugaldekoak.
Kultur etxean, 19:00etan.

OTSAILAK 26, LARUNBATA

Inauteriak

OTSAILAK 28, ASTELEHENA

Haurrentzako antzerkia:
Patata Tropikalaren
Niararen bidaia.
Kultur etxean, 18:00etan.

AIA

OTSAILAK 19, LARUNBATA

Ikuskizuna: Haatik dantza taldearen
Errimak bi oinetan.
Probalekuan, 22:30ean.



Haatik dantza taldearen *Errimak bi oinetan.*

Bertso ariketa eta jokoak dantzara eramatea da emanaldi honen berezitasuna edo ezberdintasuna, eta horien bidez gaurkotasunari buruzko gogoetak plazaratzea, mugimendua emanaz.

NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karakara.eus e-posta helbidera bidali otsailaren 18a baino lehen.

Saria: EKAIN sagardo kaxa izango da. Karkarako Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Urtarrileko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen. 20. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta **Joxe Mari Lizarralde** bazkidea izan da irabazlea.

Puntua jarrita

Egilea: Lander Sarasola.
Doinua: Betroiarena.

1

Lagun arteko proba egin da famatu

holakorik ez genun
bela pentsatu
guri parte hartzea
zitzaigun tokatu
ta beste jende askok
gintun animatu
hasi ta bukatu
nahi dunak jokatu
Pollo zirikatu
asko entrenatu
eta egun hartan
galtzeko prestatu (bis)

2

Azken ostiraletan
afaya hilero
ondo ezautzen gea
gu honezkero
afaltzen hasterako
ez besteik espero
Murua izaten da
artifiziero
afaldu ta gero
konplejuak zero
denak aho bero
zenbat itxafero
erronka polit bat
daukagu urtero (bis)

3

KARKARAK egin zuen
gure jarraipena
urteko rankingean
ez zen azkena
urte oson laugarren
irakurriena
morboa bazuela
gauza nabarmena
jakin nahiarena
nor izan aurrena
batzun garaipena
besten etsipena
laguntasuna da hor
ospatzen dena (bis)

Hurrengo bertsolaria:


Iker Gurrutxaga.

Puntua:

KARKARAn eman lehen pausoak
ta orain MusikHaria.

HASI BERTSOTAN ATALEAN PUNTUKA ARIKO DIRA BERTSOLARIAK. ORAINGOAN LANDER SARASOLARI JARRI DIO PUNTUA JON ITSASOK: "LAGUN ARTEKO PROBA EGIN DA FAMATU".

ZORIONE MENDEZ



MAHAI EGUTEGIA 2022



1€



UROLAKO KOMUNIKAZIOTALDEA K.O.P. ELK.

HITZAko bulegoan eskuratu
AZPEITIA

Soreasu 1. Dinamoa • 943-81 38 41

ZARAUTZ

Araba kalea 27 • 943-87 00 17